

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 6230

*EBAZPENA, 2017ko abenduaren 12koa, Kulturako sailburuordearena, irudi-sorkuntza bultzatzeko emandako laguntzen berri ematen duena.*

2017ko irailaren 11n, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko irailaren 7ko Agindua argitaratu zen EHAAn. Agindu honen bidez, 2017. urtean irudi-sorkuntza bultzatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen da.

Aginduaren 11.1 artikulua dioenez, Kulturako sailburuordeak emandako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizatua egingo bazaie ere.

Horiek horrela izanda, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko irailaren 7ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 12a.

Kulturako sailburuordea,  
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

## ERANSKINA

## IRUDI-SORKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZA EMAN ZAIENEN ZERRENDA

A) Modalitatea: komikiak edo eleberrirako grafikak

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza (euroak)
de Isusi Garcia, Javier	La Divina Comedia de Oscar Wilde	15.000
de Orbe Ferreiro, Alejandro	Los Enciclopedistas	15.000
Fano Ardanaz, Daniel	Migel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak	15.000
Larratxe Berazadi, Joseba	Joana Maiz	15.000

B) Modalitatea: album eta liburu ilustratuak

Eskatzailea	Dirulaguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza (euroak)
Marquez Charramendieta, Nerea	Zirimiri	15.000
Odriozola Belastegui, Elena	Sentipenen etxea	15.000
Okina Salazar, Iraia	Emakume Burugabea	15.000